

Les necrològiques

Telèfon 972 186 400

Dissabtes i diumenges a partir de les 18 h.

necros@elpuntavui.cat

ESPORTS

Adeu a Diogo Jota, ídol d'Anfield i referent del futbol portuguès

Un tràgic accident a Zamora acaba amb la vida del futbolista i del seu germà

Oriol Robiró

BARCELONA

Dol en el món del futbol. L'internacional portuguès Diogo Jota (Massarelos, Porto, 1996) va morir ahir a la matinada en un accident de trànsit a la província de Zamora, concretament a la carretera A-52 en direcció a Benavente.

El portuguès, de 28 anys, era futbolista del Liverpool, amb qui la temporada passada va guanyar la Premier League; va disputar 26 partits i va marcar sis gols. En l'accident també va morir el seu germà, André Silva, també futbolista i jugador del Penafiel, de la segona divisió portuguesa. El Liverpool va penjar un missatge a la xarxa X en què mostrava la "devastació" de l'entitat per la notícia. Cristiano Ronaldo, company a la selecció, i tots els grans clubs d'Europa van publicar missatges de condol i de suport als familiars i amics del conegut futbolista.

Segons van assenyalar alguns testimonis de l'accident, una punxada de roda hauria provocat la sortida del vehicle de la via, cosa que va provocar un incendi que va envoltar el vehicle i es va escampar per la vegetació propera. La notícia va colpejar amb força el món del futbol, ja que, a més, Diogo Jota s'havia casat el 22 de juny passat amb la seva parella, amb qui tenia tres fills.

Diogo Jota havia jugat les últimes cinc temporades al Liverpool, amb qui va guanyar una Premier –la del curs passat–, una FA Cup i una copa de la lliga, a més d'una supercopa. Al Liverpool hi havia arribat l'estiu del 2020 procedent del Wolverhampton en un traspàs valorat en uns 45 milions d'euros. Als Wolves, l'extrem hi va jugar tres temporades; va assolir l'ascens a la Premier en la primera i es va consolidar com una de les grans promeses del futbol



Diogo Jota, en un partit el 2023 a Anfield ■ EFE

europeu després d'haver sortit del futbol de base del Paços de Ferreira i tenir un pas fugaç per l'Atlético de Madrid, on no va arribar a debutar en partit oficial, abans de ser cedit al Porto i posteriorment al Wolverhampton, que el va acabar adquirint en propietat.

Al Liverpool, tot i la competència en la davantera amb jugadors com Luis Díaz, Salah i Darwin Núñez, era un jugador molt estimat i que sovint revolucionava els partits des de la banqueta gràcies al seu oportu-

nisme i la seva velocitat.

Les reaccions al tràgic succés no es van fer esperar. "El futbol portuguès està absolutament devastat. Estem tots de dol", va admetre el president de la federació portuguesa, Pedro Proença, on està concentrada la selecció femenina del seu país. Jota havia debutat amb la selecció del seu país el 14 de novembre del 2019 en un partit contra Lituània. Va disputar l'Eurocopa del 2020 i la del 2024. En total, va jugar 49 partits i va fer 14 gols.

TOT RECORDANT



► **Suzanne Lenglen (1899-1938).**

Tennista francesa, considerada una de les millors tennistes de tots els temps. Va aconseguir guanyar al llarg de la seva carrera esportiva un total de 31 títols del Grand Slam, dotze en categoria individual, i tres medalles olímpiques. Dominadora del tennis femení a la dècada del 1920, va ser anomenada "la Divina" per la premsa. Quatre anys després de començar a jugar a tennis ja es va plantar a la final el 1914 del campionat de França, que després seria l'obert de França, amb només catorze anys. En la final va perdre davant la defensora del títol, Marguerite Broquedis, en tres sets. Al mateix any, però, ja es va imposar en el campionat del món de pistes dures i va esdevenir la campiona més jove en un gran torneig en la història del tennis. El 1997, la segona pista de l'estadi de Roland Garros, on es juga el torneig de Roland Garros, va ser batejada amb el nom de Suzanne Lenglen, i la guanyadora individual femenina rep la copa Suzanne Lenglen.



► **Josep Espasa i Anguera (1840-1911).**

Va ser un editor català. Amb el seu germà Pau va fundar Espasa Germans, empresa precursora de l'Editorial Espasa, i posteriorment va ser impulsor de la prestigiosa Enciclopèdia Espasa. Quan encara era un noi, va haver de traslladar-se a Barcelona, on va treballar en l'enderrocall de les muralles de la ciutat. Als 18 anys treballava de repartidor de llibres per entrega. Aviat va quedar fascinat pel negoci dels llibres i el 1860 va arriscar els seus modestos estalvis per crear un petit centre de subscripcions, precursor de l'editorial Espasa. Durant el primer període, amb el seu germà Pau i sota el nom d'Espasa Germans, va publicar diversos llibres en català, com la segona edició del *Diccionari de la llengua catalana ab la correspondència castellana y llatina*, de Pere Labèrnia. El 1875 va editar *Poesies catalanes* de Frederic Soler.

► **Josep de Vilamala (?-1720).** 121è president de la Generalitat de Catalunya i el darrer abans de la primera abolició de la institució després de la derrota del 1714. Era monjo del monestir de Sant Esteve de Banyoles i el 1713 va assistir d'urgència a la junta de braços. Allà es va resoldre com seria la resistència contra les tropes de Felip V i ell va ser investit nou president.

CULTURA


Joxe Azurmendi, la lluita per dignificar el basc com a llengua de creació i pensament

Filòsof, escriptor, poeta i traductor, ha estat un referent per a la creació literària en llengua basca

Lluís Simon

L'escriptor, filòsof i poeta Jose Azurmendi Otaegi (Zegama, 1941), considerat un dels grans pensadors bascos dels últims temps, va morir dimarts als 84 anys. Han recordat la seva figura els grans mitjans d'Euskal Herria. Estava considerat, de fet, com un dels grans pensadors nacionals bascos. La seva aportació a la llengua basca des de diferents àmbits va ser una de les més importants del segle XX.

Catedràtic i professor de filosofia moderna a la Universitat del País Basc, va ser director de *Jakin*, la revista en llengua basca més veterana, dedicada a la cultura i el pensament. Abans havia estat sacerdot i havia estudiat teologia a Roma. Durant el



Joxe Azurmendi ■ UPV

franquisme va passar molts anys fent classes de llengua i literatura espanyola a


Münster. Va assumir el projecte de posar en marxa un museu sobre José María Arizmendiarieta, el fundador de les cooperatives d'Arrasate.

Va escriure una quarantena d'obres i va col·laborar en traduccions a la llengua basca de clàssics de la filosofia. El 2010 va ser nomenat acadèmic d'honor de la Reial Acadèmia de Llengua Basca, que regula les normatives oficials de l'idioma.

Va polemitzar amb molts intel·lectuals espanyols en la seva obra *Espainolak eta euskaldunak* (Els espanyols i els bascos), en què va intentar rebatre la idea que els bascos no havien passat per un procés de romanització i que era una llengua pràcticament no escrita.

KULTURGILEEN AITORTZA ETA ESTIMUA JASO DITU AZURMENDIK

UDAGIRO | 20-22



berria

FRANTZIAKO TOURRA

Vingegaard
eta Pogacar
aurrez aurre

KIROLA | 16-17




EH Bilduk zuzenduko du Nafarroako herri lanak ikertuko dituen batzordea

→ Irati Jimenez parlamentaria izango da presidentea, Pedro Gonzalez UPNkoa presidenteordea, eta Blanca Regulez Geroa Baikoa, berriz, mahaiko idazkaria.

→ Batzordeak gutxienez lau hilabeteko epea izanen du azken lau legealdietako adjudikazioak ikertzeko.

HARIAN | 2-3



EMAKUME MUSIKARIEN BORROKA ETENGABEA

UDAGIRO | 30-31

Gaur Hitza

Gipuzkoako
basoen %10 Basotik
fundazioaren esku
utzi nahi dute jabeek

EKONOMIA | 10

Macronek proposatu
du **Kaledonia Berria**
Frantziaren estatu
libre elkartua izatea

MUNDUA | 12

'Paralelo 0, ez ipar
ez hego' jaialdiak
Irun, Hondarribia eta
Hendaia lotuko ditu

UDAGIRO | 23



Nagore Alkorta Azpeitiko alkatea hizketan, Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahalzun nagusiarekin eta Cristina Gonzalez Arabako ahalzun nagusiordearekin eginiko solasaldian, atzo. MONIKA DEL VALLE / FOKU

Politikaren oztopo sare

→ Emakumeek politikan duten parte hartzeari buruzko mintegia egin du Emakundek, Bilbon.

EUSKAL HERRIA | 4

23 Musika 'Paralelo 0' jaialdia,
Hendaia, Hondarribia eta Irunen

26 Komunikazioa Ilaski Serrano
eta Martxelo Sotes, Iruñetik

30 Emakume musikariak
Berdintasuna urrun oraindik ere

berririk ez
hil egin zarela
besterik ez

pagoak ezin ulertu
zure presa bidean
besterik ez
gauaren mugatik
haratago zoazela
besterik ez
horrelakoa da
euskal gizakia
besterik ez
horrek lotu zintuen
kate horrek
besterik ez
suak erreko ez balu
eta euriak busti ez...
herri hau doan tokira
biderik ez

berririk ez
zure eskuetan
ernai ziren hitzak
ez direla hilko
besterik ez.

**Koldo
Izagirre**

Idazlea

Euskal autokontzientziaren behargin ekin eta apala

Joxe Azurmendi
pentsalari eta
euskaltzalea
hil berritan,
kulturgintzako
hainbat kideren
iritziak bildu ditu
BERRIAk.

Azurmendiren itzala kulturegintzan

Joxe Azurmendiren heriotzaren ondotik, euskal kulturegintzako hainbat kideren iritzia bildu ditu BERRIAk. Euskaldun gisa «pentsatzeko eta bizitzeko» egindako lan sakona eta jarrera militante eta apala goretsi diote.

Testua:
Ainhua Sarasola
Garbine Ubeda
Itziar Ugarte Irizar

Mariasun Landa

Idazlea

«Kulturegintzaren genealogian ezinbesteko izena izango da beti»

Asko sentitu dut haren heriotza. Frantziskotar izandako haiek talde bat osatzen zuten; erreferente kultural inportantea izan ziren, niretzat eta beste askorentzat. Gehien ezagutu nuena Joan Mari Torreal-dai izan zen, ikaskide izan bainuen Parisen. Esango nuke taldeko gainontzeko kideek ere miresten zutela Azurmendi, hura zelako agian intelektualena-edo.

Azurmendirekin ez nuen halako harreman esturik izan, baina hain zen xarman-ta, atsegina eta goxoa, oso erraza baitzen harekin tratua. Hark idatzitako lan filosofikoek garrantzi handia izan dute euskalgintzan: erreferente ekidinezina da, zalan-tzarik gabe. Kulturegintzaren genealogian ezinbesteko izena izango da beti.

Bere ibilbideagatik eta Alemaniako autoreei erakutsitako atxikimenduagatik ere garrantzi handikoa da, izen esanguratsu asko ekarri baitzituen euskarara, eta hori altxor handia da guretzat. Frankismoan eta frankismo ostean zubi lana egitea egokitu zitzaion, eta hausnarketa inportanteak ekarri zituen: marxismoa, kristautasuna, arazo sozialak... Maila intelektualean, buru handienetako bat izan da nire inguruan.

Konfiantza handia dut, bere obra finkatuz joango da denborarekin, eta erreferente izatetik ikasia eta estudiatua izatera pasatuko da. Unibertsitatea ez da leku txarra horretarako, plataforma ederra da pentsalari batentzat.

Josu Landa

Idazle eta editorea

«Eskertu ezinezko jarrera militantea izan zuen»

EUTGn Euskal Filologia ikasten ari nintzela ezagutu nuen. Oso irakasle ona izan zen, maisu handienetakoa. *Haizearen itzalak* nire lehen poema liburua pasatu nion, eta nire aita ponteko bihurtu zen, Joan Mari Lekuonarekin batera. Liburuaren hitzaurrea idatzi zidan Azurmendik.

Horri esker konfiantza hartuta, nahiko maiz joaten nintzen haien fraide pisura, Ategorrietara. Valverde inprimategiaren ondoan zegoen. Gaueko hamarretan txirrri-jo, eta tertulian aritzen ginen.

Ezagutu dudan jenio bakanetako bat izan da, intelektual paradigmaticoa.

Baina haren militante izaera ere nabarmendu nahiko nuke, itzalean gelditu litekeelako hori. 1980ko hamarkada hasieran, *Argia* berpiztu nahian hasi ginenean, kosta egiten zitzaigun aldizkaria betetzea. Euskal prentsa desauziatuta zegoen garai hartan. Abertzaletasun ia osoak eta euskaltzaletasunaren gehiengoak prentsa elebidunaren aldeko apustua egin zuen, eta *Argia*-k ez zuen etorkizunik haien ustez. Testuinguru horretan asko kostatzen zitzaigun aldizkaria betetzea. Halako batean laguntza eskatu genion Azurmendiri, eta hiru egunen buruan edo, folio eta erdiko dozena bat artikulurekin agertu zitzaigun erredakzioan, nahi genuenean eta nahi bezala argitaratzeko. Odolean zuzenean punpatutako oxigeno hutsa izan zen hori guretzat.

Bigarren Korrikako irudi bat datorkit

akordura, 1982koa. Garai hartan EAJk guztiz demonizatuta zeukan Korrika. Bada, *Argia*-k azken kilometroetako bat hartu zuen, Donostian. Joxemi Zumalaberri bururatu zitzaion Azurmendiri proposatzea lekukoa eraman zezan, baita onartu ere Azurmendik, eta hortxe ageri da, *Argia*-ren kilometroan lekukoa eskuetan, Prim kalean. Hori, garbi esanda, militantzia da, eta hori nabarmenduko nuke. Poeta gisa, *Manifestu atzeratua*-n iradoki zuena praktikara eramaten saiatu da bizitza osoan. Alegia, utopiaren alde, herri bat egiten saiatuko gara. Eta esperantzarekin beti. Eta bere irribarre eternoarekin. Baita lan eginez ere, gogotik. Eskertu ezinezko jarrera militantea izan zuen.

Alba Garmendia

Filosofian doktorea

«Azurmendi irakurritz pentsatzen ikasten da»

Heriotzak denbora eskatzen dit, hil denarekiko isiltasunezko errespetu bat-edo. Utzi duen hutsuneari aitortzatxoa egiteko izango da, auskalo. Baina epe motzeko erreakzio azkarrak behar ditugu gaur, nork zer esan duen jakin, gurea bota, eta Azurmendiren heriotzari bere obraren tamainako erantzunekin erantzun: asko eta handi. Dolu kolektiboa, ongi etorri.

Idatzi duen adina pentsatzeko bide ematen du Azurmendiren obrak, inondik ere, eta egun hauetako iritzia, aitortza eta azpimarra askotarikoak badira honen erakusle: ez dago bere ekarpena ideia soil batzuetara



ekartzerik. Baina zerbait esan behar, eta zera esango nuke: Azurmendi irakurritz, pentsatzen ikasten da.

Marko propioetatik pentsatzea zer den erakusten digu. Konplexu probintzianoe-tatik askatzen laguntzen du. Berarekin ikasten da frantsesak eta espainolak bezainbesteko duinak eta inperfektuak garaela euskaldunak. Nor izateko eskubidea dugula. Pentsatzea zalantza egitea dela erakusten du, egia absolutuei mesfidantza izatea ez dela erlatibismo zentzugabearen erortzea. Ez garaia jainko txikiak. Mitoak behar ditugula, baina mitoekin bakarrik ez goazela inora. Laburpena? Lehenengo Azurmendi irakurri, gero irakurritakoa pentsatu eta, bukaera-bukaeran —agian (ez)—, gurtu.

Andoni Olariaga

Idazlea eta pentsalaria

«Irribarre bat ahoan eta laguntzeko prest beti; horixe da Azurmendiren figura niretzat»

Irakasle izan nuen. Gazte nintzela, haren-gana jo nuen euskal gatazka ulertzeko eta euskal problematika ulertzeko, eta gero erreferentziazkoa bihurtu zitzaidan. Urte askoan, elkarrekin aritu gara hainbat proiektutan, adiskidea ere izan da, bai eta aitita intelektual moduko bat ere, niretzat.

Zoritxarrez, ez du merezitako aitortzarik izan; ez dute hartu pentsalari osotzat, gure herria ere ez delako herri osotzat hartzen. Horregatik, askotan nazionalismoaren

pentsalaria dela esaten da, eta hori ere bada, baina ez soilik hori. Filosofian izan zitezkeen gai arantzatsu guztiak ukitu ditu bere pentsamenduak, eta kulturaren aktibista ere izan da.

Herri honek garai bakoitzeko zeuzkan arazoak aztertu, horien gainean ahal zen guztia irakurri eta apunteak bildu ditu Azurmendik. Halaxe azaltzen baitzituen bere liburuak, hain zuzen, apunteen bildumak balira bezala. Bere jakintza entziklopedikoa eta apaltasuna maila berekoak izan dira beti. Eta horixe da, hain zuzen, gehien miretsi diodana: bere apaltasuna. Baita bere zorroztasuna ere, baina inoiz ez da mintzeko asmoz izan. Era berean, probokatzaila izan da, baina pentsatzera bultzatzeko. Bere izaera eta balioak ere mirestekoa iruditzen zaizkit. Irribarre bat ahoan eta laguntzeko prest beti; horixe da Azurmendiren figura niretzat.

Idurre Eskisabel

Kontseiluko idazkari nagusia

«Mundua euskaratik eta euskaraz eraikitze argi nagusietako bat izan da»

Dudarik gabe, itzela da Joxe Azurmendik euskararen normalizazioari eta biziberri-tzeari —eta orokorrean Euskal Herriari— egin dion ekarpena. Nolabait, berak eta 56ko belaunaldiak beste kide batzuek —baina Joxe Azurmendiren ekarpena bera-

(HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZEN DU) →

Joxe, zurekin pentsatzen jarraituko dugu

Joanmari Larrarte
Joxemari Sors

Elkar Fundazioa

Gaixorik zela ere, azken urteetan, gertu-gertuan izan dugu Elkarren sorreratik bertako kide izan dugun

Joxe Azurmendi pentsalari handia. 1974an, bi urte aurretik Baionan sortu zuten Elkar argitaletxeko sortzaile taldera bildu zen Hego Euskal Herriko beste 19 lagunekin batera, Ipar Euskal Herriko beste 20 ekintzailek abiatu zuten Euskal Liburu eta Kantuen Argitaldaria izena eman zioten proiektu hura sustatzeko asmoz.

Orduan izena eman zuen eta gerora, berriz, beti egon izan da argitaletxeari eta fundazioari lotuta. Elkar argitaletxeak haren liburu asko argitaratzeko zortea eta ohorea izan du, eta Patronatuan kide izateko aukera ederra izan dugu —Patronatuko lehendakariorde izan zen hasieran—. Ederra izan baita beti Joxe aldameneari izatea, harekin elkarriketa bakoitza ikasteko bide baitzen. Bere-berea zuen umiltasunarekin, adi entzuten zituen beti azalpenak —entzuten jakitea zen bere bertute handietako bat—, eta zalapartarik gabe emango zuen gero iritzia, iritzi apala, haren ustez, baina apaletik gutxi izaten zuena, haren hitzean beti izaten baitzen kontuan hartzeko oharren bat.

Euskaratik eta euskal kulturatik begiratu dio munduari Azurmendik, Euskal Herritik, beti argi izanda herri zapaldu batetik mundua ulertzen saiatzeak zer esan nahi duen; eta hori ekarpen handia izan da herri honetarako, ez dago zalantzarik. Agian horregatik, eta bere pentsamendua euskaraz garatu eta zabaldu duelako, izan du hain oihartzun txikia gure herritik kanpo, euskaratik kanpo.

Koherente izatearen ondorioak dira horiek, eta ez du izan arazorik horrekin, ez zuen behar munduaren gorazarerik. Azurmendik bere gogoetak herrikide zituen horiekin partekatu nahi izan ditu eta haien idatzitako du, guretzat, alegia, ez lezioak emateko asmoz, guk ere gure herria pentsa dezagun tresnak emanez batez ere.

Kokapen horretatik ulertzen da Azurmendiren ekarpena Jakinen, Elkarren eta beste hainbat herri proiektutan, betiere euskarari eta euskal kulturari lotuta, euskararen beharrei erantzuteko ekimenak laguntzen eta sustatzen. Bere herriarekiko konpromiso handiko gizona izan da, inolako zalantzarik gabe.

Azurmendik bere gogoetak herrikide zituen horiekin partekatu nahi izan ditu eta haien idatzitako du, guretzat, alegia, ez lezioak emateko gogoz

Ekimen askotan aritu bada ere, Jakin izan da Azurmendiren etxe nagusia, Jakinen eremuan egin du lan Torrealdairekin, Intxautirekin eta Agirrebaltzategirekin batera —ez diote ekarpen makala egin, guztiek ere, euskal kulturari!—, eta hari lotuta gogoratuko dugu guk ere, ezin baita bestela izan; baina era berean etxekotzat izango dugu beti, Elkarreko kide izan baita hura sortu zenetik hil den arte. Nola ez da ba etxekoa izango!

Askotatik diogu zor Joxe Azurmendiri eta bere garaiko beste askori, eta ez dakigu asmatu izan ote dugun hori haiei behar bezala adierazten. Guk gutxienez lerro hauen bidez gizar-tera zabaldu nahi dugu hori, merezi duelakoan. Eredu izan da eta izaten jarraituko du. Zalantzarik gabe. ●

→ (AURREKO ORRIALDETIK DATOR)

riaz eta propio azpimarratzeko modukoa da arlo honetan— euskaltzaletasun garai-kidea eratu dute. Ohartarazi digute gure kausa fundazionala, min fundazionala edo auzi fundazionala hizkuntzarena dela; euskal herritartasuna, euskal izatea, hizkuntzan oinarritzen dela, hori dela gu egiten gaituen argamasa, eta hori dela nolabait



Joxe Azurmendi, 2012an, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.

GORKA RUBIO / FOKU

munduan lekua egiten diguna. Joxe Azurmendik erakutsi zigun, besteak beste, bere gizaberetxoa hizkuntzaren bidez jabetzen dela bere buruaz, bere izateaz, eta, ondorioz, munduaz. Alde horretatik, mundua euskara bera da, eta mundua euskaratik eta euskaraz eraikitzeke argi nagusietako bat izan da, euskaltzaletasun garaikidearen zizelkatzaile bat.

Erakutsi digu, gainera, euskara bera mundu dela, baina mundu izateko ze garrantzitsua den garaiko gai, auzi eta eztabaida orohartzaile edo globalizatzaileetan egotea, edo elkarrizketa izatea auzi horiekin, pentsamendu ildo horiekin. Horiek ekartzen, gure egiten eta gure ikuspegi txertatzen maisu izan da, eta, alde horretatik, auzi unibertsal edo orohartzaile horiek gudan kokatzen egin duen ekarpena ere sekulakoa da. Horren seinale da, dudarik gabe, oraindik ere pentsalari eta ikerlari berrien arrastoa Joxe Azurmendiri segitzea dela.

Beraz, esker on izugarria. Batzuek egingako ekarpena aitortzeko uste dut hitzak hutsalak izaten direla, eta oso mugatuak, baina horixe azpimarratuko nuke: bide

asko zabaldu dituela, oraindik ere eman-korrak diren bideak, oraindik ere ibiltzeko ditugunak, euskaratik eta euskaraz mundua egiteko proposamenak zabaldu dizkigula. Aurrerantzean ere, oxala, segituko dugu Azurmendik zabaldutako ildotik bidea egiten.

Alaitz Aizpuru

Joxe Azurmendiren lanaren eta pentsamenduaren ikerlaria

«Azurmendiren lana euskaldun gisa bizitzeko kontzientzia askatasuna da»

Norbaitek kultur itxitasunaren susmorik pizten ez badu, hori Azurmendi eta bere lana da. Belaunaldiren batek sutsuki Euskal Herriatik Europarako eta mundurako bidea ireki eta zabaldu badu intelektualki, hori gerraosteko Azurmendiren belaunaldia da.

Eta halatan ere, aurreko horrekiko inongo kontradikziorik suposatu gabe, euskal mundu propio baten aldeko ahalegina zen berea, gizatasun errotu batena.

Euskarazkoa bakarrik izango zen mundu horren alde egindako hautua zen bere lanak ere euskaraz idatziak izateaz gain, ondoren, erdaretara ez itzultzea. Bere lanak euskarazkoa bakarrik eta euskaldunona bakarrik izango zen eremua elikatzeke, aberasteko balio zezaten nahi zuen. Azurmendiren pentsamendura eta lanera gerturatu nahi duena euskarara eta euskaldunon mundura gerturatu dadila, alegia. Eta ez alderantziz. Konbikzio handiz bizi zuen hautu hori, nahi bada, sakrifizio hori. Gaur egungo kanpora begirako kultur ikuspegi obsesibotik, askorentzat ulertezina eta galera.

«Nire obra ia dena euskaraz dago. Zergatik? Erabaki pertsonala da».

Azurmendiren lana euskal autokontzientziaren eraikuntzan, euskaldunen (ber)egitean eta euskaldunen zerbitzurako legitimazio propioen lanketan harribitxi zaigu. Euskaldunok geure buruaz hitza hartzeko, hitz egiteko, geure burua izendatzeko eta geure kontzientzia propioa garatzeko ariketa apartak dira bere lanak.

Azurmendiren lana bereziki euskal komunitatearen norberatasuna indartzeko esfortzu handi bat izan da. Euskaldunon kontzientziak inbaditzeko, menderatzeko, menderatu ezin izan direnean zanpatzeko erabili diren amaraun teoriko, etiko eta politikoen aurkako sormen lan handi bat, batetik. Eta legitimazio arrotzik behar ez duen euskaraz eta euskaratik eraikitako bizimodu eta pentsamendu batena, bestetik.

Azurmendiren lana, euskaldun gisa sentitzeko, begiratzeko, pentsatzeko, erabakitzeke, funtsean, bizitzeko kontzientzia askatasuna da. Inoren sukurtsal mental, kultural, moral, politikoa ez izateko barne askatasunerako arnasa. ●

Joxe Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki

Miren Azkarate

EHUko ohorezko lankidea eta euskaltzain osoa

Gizon poliedrikoa zen Joxe: frantziskotarra, *jakinlaria*, filosofoa, unibertsitateko katedraduna, pentsalaria, kultura gizona, euskaltzain ohorezkoa... Nik bi eremu partekatu ditut, bereziki, Joxerekin: EHU eta Euskaltzaindia. «1956ko belaunaldi» izenaz eza-gutzen den taldeko kide izanik, ez da harritzekoa Arantzazuko 1968ko Kongresurako euskaltzain urgazle izatea: 1965ean izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle eta 2010ean ohorezko euskaltzain. Zergatik? Euskara batuaren bilbe eta irazki izan delako Joxe. Ehuna osatzeko bi motatako hariak behar diren bezala, irazkikoak edo goitik beherakoak, eta bilbekoak edo zeharkakoak, hizkuntza gutxiagotu baten estandarizazioan ere bi motatako lanak behar dira: corpusgintzari dagozkionak eta estatusaren alderdikoak. Beste hitz batzuetan esanda, hizkuntza bera lantzea eta landutako horri erabileraren eremuak ematea. Inor gutxi jarriko du zalantzan bietako lanak egin zituela Azurmendi euskaltzainak.

Gaur, ordea, corpusgintzako ekarpena nabarmendu nahi dut. 1956ko belaunaldiko kide zen aldetik, bai berak eta bai bere lagunek urte haietan, 1968 aurretik eta 1970eko hamarkadan zer esan zuten, zer idatzi zuten eta zer egin zuten azpimarratu nahi dut. Aurrera egin aurretik, baina, lerro hauek irakurriko dituztenei esan nahi diet hemen aipatuko ditudan eta beste artikulu asko ere erraz kontsulta ditzaketela, Jakin Taldeak eskura jarri baitizkigu, digitalizaturik, Azurmendiren lan guztiak.

Hizkuntza gutxiagotu baten estandarizaziorako lehen urratsa eredu hautatzea izan ohi da. *Gipuzkera bai, lapurtera ere bai* (1972) izeneko

artikulu adierazi zuen zein zen bere iritzia: gipuzkerak ematen zuen batasunerako oinarri sendoa (Mitxelena adierazi zuen bezala hor zuten euskarak indargunea), baina gainerako euskalkiak ere ezin ziren guztiz alde batera utzi. Esango nuke horretan gaudela gaur ere: hiztegi, sintaxi egituretan, ahoskeran eta morfologian ere bai, hain handi batean, 1968tik euskalkiekin aberasten, euskalkiei leku egiten sortutako eredu estandarrean. Bestalde, argi utzi zuen kontuan hartu behar zela irakurleen eta idazleen iritzia ere; euskara batua ez zela *teknikoen* arazo hutsa. Horixe da, hain zuzen ere, estandarizazioan beti aipatzen dena: ezinbestekoa dela aukeratzen den ereduak onarpen zabala izatea.

Jakin aldizkarirako beharrezko zitzaien ortografiaren batasunaz ere idatzi zuen (ikus *Jakin* 158), arretaz irakurtzea merezi duen artikulu. Izan ere, Jakin taldeak tratatu behar zituzten gaietarako nolako hizkuntza eredu behar zuten ukitzen du lan horretan. Besteak beste, argi geratzen da zergatik ez zien balio hasieran aholkularitzat hartu zuten Orixeren ereduak, ez terminologia ereduak, ez prosa ereduak ere. Eta une egokia da *Zer dugu Orixeren alde* eta *Zer dugu Orixeren kontra* lanak gogora ekartzeko. *Egiaren orduan euskara ez da problema* (1981) artikuluan, berri, nabarmendu zuen gizarte osoaren erantzukizuna zela euskara eremu guztietara eramatea.

Amaitu aurretik, *Euskaltzaleen batzarrea Arantzazun* (1963), *Enekok erdaraz irakurtzen du* (1982) eta *Kultura nazioartean. Nobela sinpleak eta euskara* (1976) artikulak gomendatuko nizkizueke. Hor deskubrituko duzue Domenico Modugnoaren *Volare* euskarara moldatu eta irratietan zabaltzea defendatzen zuen Azurmendi; edo kontsumorako irakurgai erraz, arina izango diren nobelak defendatzen zituena.

Ez dago azpimarratu beharrik euskararen gaineko gogoeta horiek guztiek eta beste hamaika artikulutan jasotakoek ez dutela gaurkotasunik eta indarririk galdu. ●

Azurmendi bat irakurlearen interes bakoitzeko

Andres Urrutia, Lorea Agirre eta Xabier Mendigurenek pentsalari zegamarraren obra nondik irakurtzen hasteko gomendioa luzatu dute

JON AGIRRE

DONOSTIA. Ibilbide luze eta oparoan milaka orri bete zituen Joxe Azurmendiren lan bat hautatzea ezinezkoa da. Are gehiago, ez zen bidezkoa izango, pentsalari «oso aberats, oparo eta matiz askokoa» izan baitzen urte askoan Elkar argitaletxean haren editore izan zen Xabier Mendigurenek esan bezala. 41 liburu, 500dik gora artikulua eta beste hainbat testu landuta, bada non aukeratu, baina nondik hasi? «Azurmendi asko daude Azurmendiren baitan; bakoitzaren zaletasunen arabera abaniko handia du». Horra, bada, kezka edo gai araberako gomen-dio zerrrenda:

Sarrera modura. Denbora gutxi badu irakurleak eta zegamarraren «pentsaera, izaera eta kezka» deskubritu nahi baditu, 'Manifestu atzeratua' poema luzea aholkatzen du Mendigurenek, bereziki lehen atala. Estreinakoa izan zen, 1968an idatzia eta zentsurak geratu bazuen ere –1990ean Susak kaleratu arte– «euskal literaturan eta pentsamenduan testu fundazionala» da Lorea Agirre Jakin fundazioko lehendakariarentzat. «Astintzaile izan zen, egur apur bat eman zuen batera eta bestera». Horretaz gainera, bertan aurkitzen dira ostanen gai zentral izango diren asko: «herri honekiko atxikimendua, libertate nahi bat, jende apal eta xumearekiko lotura, guayis-motik ihes egite bat...».

Nazioa. Azurmendik baliatu zuen metodologia ezin hobe islatzen duen arloa da: «Lehenik pentsamendu teorikoa aztertzen du mundu mailako autoreekin elkarriketean, alde eta kontra, eta landu eta gero gure errealtaterak dakar gure kondiziotik zer esan dezakegun aztertzeke», laburtzen du Agirrek. Mendigurenek argi du 'Espainolak eta euskaldunak' (Elkar, 1992) dela zerrenda honetako lehena. «Klasiko bat da, Euskal Herrian egin den saiakerarik inportanteenetakoa izan daiteke, bai eraginez eta bai kalitatez».

Kultura demokratikoa. Honen «aldeko aldarria» egiten du hainbat lanetan Azurmendik: 'Demokratikak eta biolentoak' (Elkar, 1997) edo 'Barkamena, kondena, tortura' (Elkar, 2012), esaterako. Hausnarketak nagusia honakoa da: Estatuek hartzen dute demokratiko izatearen esklusibitate eta Konstituziotik kanpo ez dago demokraziarik. Zalan-



Joxe Azurmendi 2017an 'Hizkuntza, nazioa, estatua' liburuaren aurkezpenean. MIKEL FRAILE

'Manifestu atzeratua' poema luzea «funtsezko» dute, obra «fundazionala» delako eta gaiak osteko lanetan direlako ere

tzan jarri baino, azaleratzen du gerta litekeela «egitura demokratiko batek jarrera oso antidemokratikoak praktikatzeko», adibide modura jarritz Egunkariaren itxiera. «Kultura demokratikoa indartu behar da», proposatzen du.

Literatura. Idazteaz gain, beste egileek egindako lana ere sakonki aztertu zuen liburu zein artikulua solteetan. Lehenen baitan nabarmentzen du Andres Urrutia Euskaltzainburuak 'Zer dugu Orixeren kontra?' (Jakin, 1976) eta 'Zer dugu Orixeren alde?' (Jakin, 1977) bikotea. «Gure belau-naldiarentzat horrekin nahikoa genuke», goraipatzen du akademiaburuak. «Euskalgintzaren barnean egon zen etena zen bere ardura, gerra aurretiko euskalgintza ez zuela ezagutu eta hartara heldu ezin izana, debekua zelako tartean, euskal kultura ez zelako existitzen, euskara bera kolokan zelako». Kezka hori oso presente ikusten du Urrutiak gainerako lanetan, unean uneko teoriak aztertzerakoan eta zuen jarrera dibulgatiboan. «Berrikuste hori oso

Orixen ardatz hartuta ondutako bikotea edo literaturako totemak aztertzeke artikulua ezin dira zerrendan falta

garrantzitsua da, aurreko belau-naldiek egindakoa zertan den baliagarri erakusten duelako, baina iraganeko ajeak non dauden ikusteko ere balio duelako». Hari gehitzen dio Mendigurenek Gandiagari buruzkoa. Artikuluetan esplikatuak dira «fintasun handiz», besteak beste, Txillardegia, Sarri-nandia, Aresti, Mirande.

Teknologia. Adimen Artifiziala bolo-bolo den aro honetan, aitzindari izan zen ardurak eta hausnarketak jasoz 'Teknikaren mediatzioa' (Kutxa Fundazioa, 1998) lanean. Gizakiaren eta teknologiaren harremanari buruzko kezka jaso zituen, berau «natura mundua gobernatu, menperatu eta ustiatzeko» sortu zela oroituz eta, galdetuz, ea ez ote duen orain honek gizakia menperatzen. «Liburu delizio-soa», dio Agirrek.

Kooperatibismoa. Enpresa-ere-dua aipatuz gero, Jose Maria Ariz-mendiari eta izen propio nagusia, eta hari buruzko lanik garrantzitsuen egina izan zuen 'Ariz-

Ibilbide osoa euskara batu «ederrean» egin izana goraipatu dute, baita erakutsitako jakinduria eta begirada irekia

mendiariaren pentsamendu azterketa' (1984) tesian. «Lana-ren, kapitalaren eta lantokiko antolamenduaren kezka duenarentzat ederra da», gomendatzen du Mendigurenek.

Gizaberea. Gizatasunaren gaineneko gogoeta etiko-humanistikoak bildu zituen, esaterako, 'Gizona abere hutsa da' (Jakin, 1975) edo 'Gizabere kooperatiboaz' (Jakin, 2016) lanetan. «Ez garelako moderniak saldu digun gizon arrazoizko, zentzuzko, inteligente, beti zuzen hori» eta besteen beharra dugula. «Hori da gizatasunaren kondizioa», azaltzen du Agirrek. Ildo horretan, gorputzari buruz egindako hausnarketa horiek «egungo pentsalari feminis-tekin oso erraz» lotzen direla mahaigaineratzen du. «Harrigarria edo argigarria da».

Euskaraz. Irekitako ateak, sortu-tako eztabaidak... Dena euskaraz egin izana ere bada aitortzekoa, are gehiago erabilitakoa «izugarri aberatsa» izanik Mendigure-nen esanetan. «Bere pentsamen-

duak konplexuak dira eta konplexutasun horri dagokion hizkuntza nabarduraz betea, esaldi luze eta korapilatsuekin». Garairako ez zena ohikoa. Ezta bere lexikoa ere, «zabala», eta hainbat iturritakoa: euskal literaturako klasi-koak –«Axularren esaldiak barra-barra»; Zegamakoak ziren eta hiztegi-tan ez zetozen esamoldeak –'konpon-dio' esaterako, bi pertso-nen arteko tratua zikina, Anjel Lertxundik 'konpontxo' esana–, eta «hitz internazionalak», hau da, gaztelania, frantsesa, ingele-sa eta alemanetik «hirutan baze-goen» erabiltzen zituela, euskal hiztegi-tan ez datozenak. Ziur Azurmendik ukatuko zuela, edito-reak oroit bezala hain berezko zuen «diziplina frantziskanoa» bitarte beti besteei ematen bai-tzien inportantzia, esateko batu-ra Joseba Intxaustiren bidez hel-du zela. Jakin Taldeko «histori-koek», 56ko belau-naldiko kideekin –Joan Mari Torrealdai, Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi–, oso bere zuten ikuspegi hura. Urrutiak esan bezala. «Kultura jatorri bat, kul-tura habe bat ezerezetik sortu zu-ten, aldizkari eta argitalpen ho-rien bitartez ezagutzen ez geni-tuen hainbat eta hainbat kontu ezagutu ditugu». Egiteko modua bezain beste –«avant la lettre»– goraipatzen du emaitza euskaltzainburuak, «mundukoa bezain duina, goi mailakoa eta es-portagarria».

[•] ANALISIA JOXE AZURMENDIREN HERIOTZA

Iñaki SOTO

Pello Zabala zenak kontatua da, Arantzazun zeudela, Joxe Azurmendik gitarra hartu eta "Quizás, Quizás, Quizás" abestia jotzeko ohi-tura zuela, Filosofoen Ereserkia izenburutzat jarrita. Osvaldo Farresek idatzitako kantuarren letra irakurrita, erraz ulertzen da txantxa. Argazki bat ere badabil hor nonbait, Azurmendi gazte-gazte bat gitarra eskuetan duela azaltzen dena.

Filosofoaren Ereserkia eta txikikerietan adituak


Maitasun hezur-haragizkoa, zalantza, galdera handiak... denetik du abestiak monasterio batean hit izateko. Fraide gazteak gaiztakeria txiki horrekin barre egiten imajina ditzakegu. Txikikeria bat den pasarte honek erakusten du, ordea, Joxe Azurmendiren eta bere belaunaldikoen artean eman ziren beste zenbait joera.

Belaunaldi horretan galdera handiei erantzuteko gogo bat dago: noiz, nola, non... azken batean, zergatik. Absolutuen garaian eta testuinguruan bizi dira, bai politikoki –diktadura latzean–, baita erlijioaren ikuspuntutik ere –beste ezeren gainetik, Arantzazu monasterioa da–. Belaunaldi horretan egia absolutuekiko mesfidantza bat ere ageri da, hain zuzen ere, garaiaren arabera indartsuagoa edo leunagoa izango den susmo bat.

Tragediari umorez erantzuteko joera ere hor dago. Iluntasuna argiarekin konbatitzen da. Baita debekatuari ate bat irekitzeko asmo bat ere, agian. Ezin pentsa eta ezin maitatu daitekeen unean eta tokian, abesti horrek eta bere esanahi bikoitzek askatasun printza bat ematen diete sotanaren azpian gorputzak eta garunak borborka dituzten gazte ero eta ez hain ero horiei.

Guztia, krisian Jakina, pasarteok ez dute "Manifestu atzeratua" edo "Demokratak eta biolentoak" idazlanen sakontasun eta indarra. Baina garai bateko pentsaera biltzeko kapaz dira, agian. Pellori esker oroitu zen Joxe Filosofoen Ereserkiaz.

Beste pasarte bat kontatu zigan orduan Joxek, garai eta izaera berekoa. Arantzazun zeudela, dena zegoen beraientzat kri-



Jon URBE | FOKU

sian: politika, erlijioa, hizkuntza, kultura, sexua... Kintakoak zituzten gazte batzuk komandotan antolatu eta iraultza egiten saiatzen ari zirela iristen zitzaien; musikaren eta bestelako kultur adierazpen berrien oihartzunak heltzen zitzaizkien; kanpoko mundu hartan emakumeak existitzen ziren, bekatuen iturri... Alegia, ezkutuan bada ere, fraide euskaldun gazte haiek Filosofoen Ereserkiko galdera guztiak eta beste hamaika zituzten eguneroko bazka. Bitartean, haien ondoan, beste kezka batzuk zituzten zenbait fraide

zeuden. Aurrenekoek iraultzaz, jainkoaren heriotzaz eta emakumez eztabaidatzen zuten bitartean, bigarrenen kezka zen, komunioa egiterakoan, ostia ahosabaiaren goialdean jarriz gero, Kristoren gorputza miazkatzen eta, ondorioz, bekatua egiten ari ote ziren.

Joxek eta lagunek izena jarri zieten kezka ttikiok zituztenei: «*Expertos en pequeñeces*» (jatorrizko gazteleran). Behin baino gehiagotan entzun nuen Joxe «aditu» hauen kontra egiten. Dena krisian dagoe-nean, iraultza baten erdian

Beste gauza askoren artean, galdera zuzenak, handiak eta pertinenteak egiten erakutsi digu Joxek. Eta beti zalantza egiten, badaezpada

edo gutxienez esperoan gaudenean, gauzak benetan aldatu nahi ditugunean, beti dagoelako txikikeriez arduratu nahi duen norbait, fokua guztiz distorsionatuko duen burokrata bat, galdera okerrak egiten tematuko den inor.

Horien aurrean pentsamendu egituratu, hedagarri, eguneratu eta erradikal bat garatzea garrantzitsua da. Krisiak gauza serioak direlako, baita iraultzak ere. Gurea bezalako nazio zigortu eta kultura txiki batetik munduari begiratzeari ez da lan erraza. Horrengatik ikasi behar da ondo pentsatzen, eta pentsatu dena ondo azaltzen.

Beste gauza askoren artean, galdera zuzenak, handiak eta pertinenteak egiten erakutsi digu Joxek. Eta beti zalantza egiten, badaezpada.

“Quizás, Quizás, Quizás”

*Siempre que te pregunto
Que cuándo, cómo y dónde
Tú siempre me respondes
Quizás, quizás, quizás*

*Y así pasan los días
Y yo desesperando
Y tú, tú contestando
Quizás, quizás, quizás*

*Estás perdiendo el tiempo
Pensando, pensando
Por lo que más tú quieras
Hasta cuándo, hasta cuándo*

«Baina libre izan nahi dugu, zer kulpak daukat nik»

naiz:



LEKEITIOko Udala

IRAGARKIA

HAPOaren I. aldaketa puntuala Aldi baterako ostatu turistikoak establezimenduen, erabilera turistikoak etxebizitzaren eta alokairuko erabilera turistikorako logelen antolamenduari buruzkoa.

HASIERAKO ONARPENA

Lekeitioko Udaleko Udalbatza Osoak, 2025eko ekainaren 24an izan duen batzarrean, aho batez, hasierako onarpena eman dio HAPOaren I. aldaketa puntualari eta aldaketa puntuala baita Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatua jendaurrean jarri dira.

Jendaurrean egongo dira herritarrek jakitun geratzeko eta alegazioak aurkezteko epea ondorengoak: 2025eko uztailaren 7tik irailaren 11ra.

Lekeition, 2025eko uztailaren 1ean
Ander Aldazabal Etxeberria, Lekeitioko udaleko alkatea

ANUNCIO

1ª Modificación Puntual del PGOU Ordenación de establecimientos de alojamiento turístico temporal, viviendas para uso turístico y habitaciones para uso turístico en alquiler

APROBACIÓN INICIAL

El Pleno del Ayuntamiento de Lekeitio, en su reunión del 24 de junio de 2025, de forma unánime ha dado la aprobación inicial a la 1ª modificación puntual del PGOU, y se somete a información pública la modificación puntual y la Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada.

El plazo de sometimiento a información pública y presentación de alegaciones será del 7 de julio al 11 de septiembre de 2025.

naiz:

Sanidad Osakidetza recibe casi 37.000 quejas y reclamaciones en ocho meses
EEPren krisia «Euskarari trufarik ez!» lelopean agerraldi baterako deia egin du
Euskal Konfederazioak **Berotzea** 55 urteetan beroena izan da aurtengo ekaina



